

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Atal honetan gure enpresa aurrera eramateko beharrezkoak diren materialak eta giza ezaugarriei buruz hitz egingo dugu.

Lehenik eta behin, gure jarduera garatzeko lokal egoki bat behar dugu. Lokal horretan, langileentzako eta guretzako eremu eroso egongo da, eta ordenagailuak eta beste tresna batzuk kokatuko dira bertan.

Enpresaren webgunea sortu ondoren, sare sozialak antolatuko ditugu. Sare sozialen bitartez, gure orraziaren publizitatea zabalduko genuke, besteak beste, munduko pertsona gehiagori gure orraziaren informazioa modu erraza batean iritsi ahal izateko. Gure produktuaren publizitatea sor al izateko, sare sozialak eta hainbat baliabide beharko genituzke, hala nola, ordenagailuak eta mugikorrak. Baliabide hauek erabilita, gure produktuaren salmenta eta publizitatea egunera eraman ahal izango dugu.

Bestalde, baliabide intelektual eta giza baliabideak ere ezinbestekoak izango dira gure enpresa aurrera eramateko, adibidez, marketing eta publizitate kanpaina on bat, bezero berriei erakartzeko. Alde batetik, publizitate edo marketing kanpaina sortzeko, sare sozialetan trebeak diren pertsonak beharko genituzke ikusle egokiak erakartzeko eta gure produktua ikusle gehiagori iritsi al izateko.

Giza baliabideekin jarraituz, gure produktua erakargarria izateko diseinuan oinarritzen diren pertsonak beharko ditugu. Hala nola, diseinatzaileek erabiltzaileen gustuak eta beharrei ondo erantzuteko gai izan behar dute, eta, aldi berean, produktuaren itxura polita zaindu eta errespetatu behar dute. Horrela, gure produktua arrakasta izateko aukera gehiago izango du.

Azkenik, bankuaren maileguak gure finantzak behar bezala kudeatzeko eta beharrezko materialak eta baliabideak eskuratzeko erabiliko ditugu. Gure kasuan, bankuari mailegua eskatuko dugu, 4.000€ inguruko mailegu bat, proiektua martxan jartzeko eta hasierako inbertsioa estaltzeko. Mailegu hori gure enpresaren funtzionamenduaren hasierako gastuak ordaintzeko erabiliko dugu, eta, gainera, lanerako beharrezko baliabideak eskuratzeko.